

Maider Sagredo: “Agroekologia diziplina aurrera eramateko funtsezkoa da generoen arteko berdintasuna lortzea eta parte hartzea sustatzea”

[Ikusi Maider Sagredoren bideoa](#)

‘Agroekologia: ikuspegi sozialetik gizarte eraldaketara’ izeneko jardunaldia jarri dute martxan, UEUko 42. edizioaren barruan. Maider Sagredo Emaus GFko hezkuntza teknikariak eman dizkigu jardunaldiaren eta agroekologia kontzeptu beraren xehetasunak.

Gaurkoan, laborantzaren etorkizunaren eta elikaduraren kalitatearen zein burujabetzaren inguruan mintzatzeko elkartu dira Eibarko Markeskua Jauregian. Jardunaldi honetan, egungo gizartean agroekologiak betetzen duen paperaz hitz egiteko eta noski, etorkizun hurbil batean, gizarte eraldaketa gauzatzeko ideiak eta proposamenak komunean jartzeko izan dira hemen, arlo honetan aritzen diren profesionalak zein herritarrak.

Maider Sagredok azaltzen duenez, agroekologia oso kontzeptu zabala da. Batik bat, pertsonen eta luraren arteko harreman batetik hasiko litzateke, eta sinbiosi horretan, guztion erritmoak errespetatu, bi elementu horien arteko goxotasun harreman bat sortu eta zaindu behar direla dio Sagredok: “Eta elementu horiek guztiekin sortzen da produkzio edo ekoizpen ekologikoa eta bertakoa”.

Diziplina horren garrantzia azpimarratzen du tartean: “Azken finean, erosten dugun produktuarekin gure herriaren ekonomia sustatzen ari gara. Baserritarrek gure ingurumena zaindu eta landu egiten dute eta gure kulturarekin bat egiten dute gainera. Horregatik ditugu hain paisaia biziak. Hori aurrera eramateko, harreman hori sortu behar da, denen arteko elkarlanaren bitartez agroekologia lortzeko”.

Definizio zabala den arren, Sagredok azaltzen du kontzeptu hori bi ikuspegi edo gai zehatzekin lotuta dagoela: alde batetik, elikaduraren burujabetza aipatzen du: “Erabakitzea zer nahi dugun ekoiztu eta nola egin banaketa hori, nola nahi dugun kontsumitu. Izatez bertako produktuak kalitatezkoak eta ekologikoak dira eta baserritar txikiak eta ertainak sustatu nahi ditugu”. Bestetik, hori aurrera eramateko, antolaketa behar dutela dio. Ildo horri jarraiki, antolakuntza eredu horrek bi zutabe dituela aipatzen du: parte hartzea eta emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna: “Bi ideia horiek oso garrantzitsuak eta funtsezkoak dira jardunaldian, bai genero ikuspuntua bai parte hartzearena. Horien bitartez, eta ekimen desberdinak aurrera eramanez, helburu bezala izango genuke agroekologia”.

Parte hartzearen kontzeptu horri buruzko azalpena ematen du: “Gu azokara joaten garenean hor jada parte hartzen ari gara. Gertatzen dena da maila oso ezberdinak daudela. Garrantzitsuak dira guztiak, bai indibidualki egiten ditugunak, bai elkarte eta administrazio bezala egiten ditugunak”.

Sagredok azaltzen duenez, bi zatitan banatu dute jardunaldia. Teorikoa alde batetik, hitzaldiek osatuko dutena eta praktikoa, bestetik. Honetan, aurretik aipatutako parte-hartze hori sustatzea izango dute helburu: “Gure kezkak eta jakinduriak partekatzea, horrekin osatuko dugu. Gaur gehienbat generoa eta emakume eta gizonezkoen arteko rola jorratuko ditugu; hala nola, zer



udako
euskal unibertsitatea

rol dauden eta zer egon beharko litzatekeen; eta bihar, agroekologia eta parte hartzea bat egiten dutela barneratuko dugu eta gero hori gauzatzeko bideak aurkituko ditugu eta hori izango da zailena”.

Etorkizunari begira, Sagredok aipatzen du EMAU Sentzat garrantzitsua dela gizartean eraldaketa hori ematea, pertsonak eta taldeak indartuz: “Guk inklusioa lantzen dugu horregatik, pertsonen beste aukera bat emateko eta agroekologiak ematen du aukera hori, pertsonen parte hartzearen bitartez, haiek aukera dezaten zer nahi duten, eta erabaki eta ondorio bat izan dezan gure herrian, lurra mailan”.

Kezka handia sortu da diziplina honen inguruan. Hausnarketa horri heldu dio Sagredok: “Jendea ez da kontzientea, ez da konturatzen. Estadistikoki euskaldunok bakarrik bertako produktuen %4 kontsumitzen dugu eta hori oso gutxi da”. Landu beharreko afera dela gehitzen du: “Lehenengo gogoeta egin behar da, gero zuzenean aktiboa bilakatzen zara eta gauzatxoak egiten hasten zara, alaitasun eta poz puntu horrekin. Pauso bakoitza gozatu, barneratu behar da. Prozesu honen baitan, modu desberdin batean eta aniztasunean denok parte hartu behar dugu”.

Arrate Corres: “Agroekologia mugimendu eraldatzailea bihurtzea lortzeko, feminismoaren ikuspegi kritikoak txertatu behar zaizkio”

UEUk 42. edizioan antolatutako “Agroekologia: ikuspegi sozialetik gizarte eraldaketara” ikastaroa hasi da gaur goizean Eibarko

Markeskoan. Agroekologia gizarte eraldaketarako bide bat da, baina normalean ez da feminismoarekin lotzen. Arrate Corres

Velasko izan da ikastaroan agroekologia eta generoaren arteko loturaz hitz egin duena.

FAOren datuen arabera, herrialde garatuetako elikaduraren %50a emakumeek ekoizten dute eta herrialde azpigaratuetan portzentai hori

handiagoa da. Arrate Corresi paradoxa bat iruditzen zaio datu horiek kontuan hartuta, agroekologia gaia beti gizonezkoekin lotuta egotea:

“Normalean Euskal Herriko haur hezkuntzako haurri lehengo sektorearen inguruan etortzen zaien lehengo irudia traktorean doan

gizonezko bat da”. Arrateri ere ekoizle batean pentsatzean, etortzen zaion lehenengo irudia gizonezko batena dela onartu du.

Arrate Cortesen ustez hori ez da kasualitate hutsa: “Gaur egun garrantzia ematen zaio nekazaritza hedadura handiak era industrializatuan

eramateari, materia prima asko ekoizteari, distribuzio handiei... Etxean egindako gauzei balioa kendu zaie, beste arrazoi batzuen artean,

legearen arabera segurtasun aldetik kaltegarriak izan daitezkeelako. Askotan etxeko produktua izateak, emakumearen ekoizpenarekin

lotzen da eta beraz, hauek baztertu izan dira. Orain, etxeko produktuak merkatu handi batera eraman behar ditugu, agro industria handi batera”.

Prentsa-harremanetarako: Idoia Torregarai

Tel.: 629 48 24 74

komunikazioa@ueu.org



ueu

udako
euskal unibertsitatea

Marta Soler ikerlariaren klasifikazioan oinarrituz, Mendebaldeko begiradaren moztasunaren hiru arloak azaldu ditu Arrate Corresek:

“Antropozentrismoa, naturaren gutxiespena; etnozentrismoa, beste kultura, klase sozial eta herrialdeekiko arbuioa; eta androzentrismoa;

emakumeekiko mespretxua eta femeninoaren baliogabetzea”. Arreseren aburuz, pentsamendu egitura horrek hainbat joera bortitz azaltzen ditu emakumearekiko, herrialdeekiko eta naturarekiko.

Bestalde, Arrate Corresek, feministek dioten “pentsamendu dikotomikoa” delarikoa gure artean zabaldua dagoela azaltzen du. Honen

arabera, bikote konposatuak sortzen dira eta horien arabera mundua irudikatzen dugu. Bikote konposatu hauen bidez mundua irudikatzen

dugu, hala nola, gizona/emakumea, arrazoa/emozioa, kultura/natura, adimena/gorputza, autonomia/menpekotasuna... Bikote dikotomiko

hauek bata bestearen gainean jartzen dira, hierarkizaturik. Arresek gai honen inguruko iritzia argi utzi du: “Benetako eraldaketa sozial bat

bilatzen ari bagara, botere erlazio hauen hausnarketa egin beharra dago, buelta bat eman behar diegu”.

Arreseren iritziz, bizitzaren sostengua merkatutik kanpo dauden zaintza lanak dira: “Zaintza lan horiek, batez ere, emakumeen kontura egon

dira, hauek merkatu laboralean sartu zirenetik. Krisiaren agerpenarekin batera, azpiko maila batera pasa dira, hauek gutxietsiz. Ikusezinak

diren arren, beharrezkoak dira sistemaren funtzionamendu eta sostengurako. Gure sistema kapitalistak zaintza lan hauek behar

-beharrezkoak ditu”.

Azken finena, Arrate Corresek bere hitzaldian zabaldu nahi izan duen ideia nagusia, agroekologia feminismoarekin oso gutxi lotuta dagoela

izan da, nahiz eta agroekologia gizarte eraldaketarako bide bat izan. Izan ere, Agroekologiako sektorean, emakumeak ere presentzia handia

duzen arren, figura bisibleak publikoki gizonak dira. Arrate Corresen ustez, feminismoak ekarpen handia egin diezakioke agroekologiari:

“agroekologiak eta ekofemismoak berdintasun handiak dauzkate, izan ere, agroekologia ikusten ez dena begiratzea da eta ekofeminismoa

baliogabetu dena balioztatzea da. Beraz, agroekologia mugimendu eraldatzaile bat bihurtzea lortzeko eta kontsumo talde bat soilik ez

izateko, feminismoaren ikuspegi kritikoak txertatu behar zaizkio”.

Horretarako hainbat bide proposatu ditu Corresek: emakumeetan oinarritzen diren ikerketa agroekologikoak gauzatzea geneologia

feministak eraikiz, kritika egitea familia egiturari eta sexu bidezko lanaren banaketari, emakumeen errelatoak kontuan hartzea, botere

erlazioak aztertzea eta denboraren kontu-hartzea, besteak beste.

BIHARKO AGENDA. Uztailak 4, Ostirala

Literaturaren ahozko baliabideak

9:00_13:00:

Prentsa-harremanetarako: Idoia Torregarai

Tel.: 629 48 24 74

komunikazioa@ueu.org



ueu

udako
euskal unibertsitatea

Aspaldiko jakintsu batek esan omen zuen hiru motatako elikagaia behar dugula pertsonok aurrera egiteko: jana gorputza asetzeko, lagunak bihotza alaitzeko

eta kontuak arima sosegatzeko. Lema horri jarraituko diogu geuk ere, egun eta erdiz, otorduetako txandak zainduta. Eta lagun artean egingo dugu, oinarrietara

itzuliz, begiradekin batera isiluneen hatsa eta hitzen arnasa berreskuratuz. Heldu artean jardun arren, behe-behetik hasiko gara, ostera ere, izan ginen haurrari arnasa itzuliz, euskararen doinu eta koloreak suspertu ahala, berezko baliabideei hautsak astinduz, oinarrizko bezain premiazko emozio bat indarberrituz: ilusioa.

Gaiak:Irakasleak:

- Yolanda Arrieta Malaxetxebarria (Etxebarria, 1963). Irakasle ikasketak, Antzerki ikasketak, Kultur eta Gizarte Antropologia. Hogeita bi urte
-
- literaturgintzan, sortzaile eta dinamizatzaille. www.nitikgura.com

Agroekologia, ikuspegi soziologikoaren hastapenak: generoa, sindikalgintza eta parte-hartze prozesuak

Ordua	Edukia	Irakaslea
9:00-10:00	Agroekologia, nekazari sindikalgintza eta herri ekimena	Mixel Berhokoirigoin
10:00-11:00	Agroekologia: eraikuntza parte-hartzailea eta herrigintza	Onintze Guridi Otsoa Maidar Sagredo Escudero
11:00-11:30	Atsedena	
11:30-13:30	Agroekologia eta parte-hartze prozesuak, mintegia	Maidar Sagredo Escudero Onintze Guridi Otsoa
13:30-14:00	Konklusioak	

Ikastaroak jarraitzeko:

www.unibertsitatea.net/blogak/ueu365/

#UI42 #Saretu

Informazio gehiago eta matrikula:

Prentsa-harremanetarako: Idoia Torregarai

Tel.: 629 48 24 74

komunikazioa@ueu.org



ueu--

udako
euskal unibertsitatea

www.ueu.eus

Ikastaroak jarraitzeko:

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/ueu365>

[#UI42](#) [#saretu](#)

**Informazio gehiago eta matrikula:
www.ueu.org**